

4. IRABAZI ITURRIAK

Gure enpresaren irabazi-iturriak, nagusiki harpidetzetan oinarritzen dira, ikastetxeek eta banaka ikasten duten ikasleek egiten dituzten harpidetzen kuotak. Prezio-sistema egokitua izango da erabiltzaile-motaren eta finantzaketa publikoaren arabera. Helburua da plataforma eskuragarria izatea eta, aldi berean, proiektuaren jasagarritasuna bermatzea.

Diru-sarreraren zati handiena ikastetxe publiko, itundu eta pribatuen harpidetza-kuotek osatuko dute. Ikastetxe publikoei, Hezkuntza Sailak ordainduko die urteroko kuota, eta horrek diru-sarrera egonkorra eta segurua bermatzen digu. Ikastetxe pribatu edota itunduek, kuota bera ordainduko dute, baina Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzen bidez. Sistema honek prezio finkoa izango du, erabiltzaile kopurura egokitua. Eta honek diru-sarreraren %60–70 inguru suposatuko du.

Ikasle nomadei (selektibitatea beraien kabuz prestatzen dutenak, etxean modu libre batean ikastea erabakitzen dutenak edota online ikasketak burutzen ari direnak) tarifa eskuragarri bat eskainiko zaie. Hau ere harpidetza bat bezala izango da (hilekoa edo urtekoa), eta prezio finko eta irisgarri batekin funtzionatuko du. Eta diru-sarreraren %20–25 inguru izango da.

KLIK ez da publizitatez beteko den plataforma bat izango baina publizitate instituzional kontrolatua (Eusko Jaurlaritzaren kanpainak, unibertsitateen informazioa...) onartuko da, betiere hezkuntzarekin lotutako edukietan eta ikasleen esperientzia oztopatu gabe. Diru-sarreraren %3–5 gutxi gorabera (osagarria).

Laburbilduz, KILKek izango dituen irabazi-iturriak, harpidetzetatik eta publizitate instituzional kontrolatuetatik aterako dira.